

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZESTOAKO UDALA

Iragarkia

Udalbatzak, 2022ko apirilaren 28an eginiko bileran, erabaki zuen behin betiko onartzea Zestoako herri plangintzako Arau Subsidiarioetako A.B.R.1 Arroa Beheko UE.AB.R. 1/1 Rezola Eremuko «R.2» partzelari dagokion Xehetasun Azterketa dokumentua. Hau da erabakiaren edukia:

Lehena. «Zestoako herri plangintzako Arau Subsidiarioetako A.B.R.1 Arroa Beheko UE.AB.R. 1/1 Rezola Eremuko «R.2» partzelari dagokion Xehetasun Azterketa»-ri behin betiko onespena ematea.

Bigarrena. Interesatuari eta idazleari erabakia jakinaraztea.

Hirugarrena. Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 89.3 artikulua dioenaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Planeamenduko Erregistrora kopia bat bidaltzea.

Laugarrena. Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 89.5 artikulua dioenaren arabera, hartutako erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea eta lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarrietan ere argitaratzea.

Argitara ematen dugu, denak jakinaren gainean egoteko, eta 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 89.5 artikulua, ezarritakoa betetzeko, kontuan hartuta dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza plangintzako erregistroan utzi dela; halaber, adierazten da erabaki honen aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daitekeela Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero eta aurreko idatz zatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoaren aurretik, beraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Ebazpena eman duen organoaren aurrean, iragarki ahu Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik aurrera hilabete bateko epean.

Zestoa, 2022ko apirilaren 29a.—Mikel Arregi Urrutia, alkatea.
(2727)

AYUNTAMIENTO DE ZESTOA

Anuncio

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 28 de abril de 2022 acordó aprobar definitivamente el expediente de Estudio de Detalle relativo a la parcela «R.2» de la UE.AB.R. 1/1 Rezola del Área AB.R.1 de las NN.SS. de planeamiento Municipal de Zestoa. El contenido del acuerdo es el siguiente:

Primero. Aprobar definitivamente el «Estudio de Detalle relativo a la parcela «R.2» de la UE.AB.R. 1/1 Rezola del Área AB.R.1 de las NN.SS. de planeamiento Municipal de Zestoa».

Segundo. Remitir el acuerdo al interesado y al redactor.

Tercero. En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 89.3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo del País Vasco, remitir una copia del expediente al Registro de Planeamiento de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Cuarto. En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 89.5 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo del País Vasco remitir el acuerdo de la aprobación definitiva del expediente al BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y a uno de los periódicos de mayor difusión de la provincia.

Lo que se hace público para general conocimiento y para dar cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 89.5 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, y habiéndose procedido al depósito del documento en el Registro de Planeamiento Urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y con la advertencia de que contra este acuerdo podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la presente publicación.

No obstante, con carácter potestativo y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, podrá interponerse recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la Resolución en el plazo de un mes desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Zestoa, a 29 de abril de 2022.—El alcalde, Mikel Arregi Urrutia.
(2727)